



Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako Plana

AITZINATU programa 2024/25 ikasturtea DEIALDIA

2024ko irailaren 13ko deialdia, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, zeinaren bidez UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileei dei giten baitaie, hizkuntza-prestakuntzarako AITZINATU programan parte hartzera.

1. DEIALDIAREN XEDEA:

Euskal Herriko Unibertsitatean euskararen egoera aztertutik eta Euskararen IV. Plan Gidariak dioenari jarraituz, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak ekimenak sustatu behar ditu irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-ezagutza eta -erabilera indartzeko eta zabaltzeko, irakaskuntzaren eta ikerketaren bikaintasuna jomugan.

Bikaintasunaren ikuspegitik, estrategikotzat jotzen da ereduazko ikasmaterial eta argitalpen zientifikoaren ekoizpena eta hedapena. Kontuan izanik hizkuntzaren kalitatearen inguruko ikuspegiak, irizpideak eta aurreikuspenak aldatuz doazela hizkuntza-komunitatearen bilakaeraren eta bestelako balio eta lehentasunen arabera, erabateko garrantzia du euskara akademiko eta zientifikoaren garapenean ardura berezia duten erakundeek ikuspegi, irizpide eta eredu horien hedapenean lan aktiboa egitea.

Horixe da AITZINATU programaren bidez UPV/EHUK berariaz bilatzen duena. Zehazkiago definituta, hauxe da prestakuntza-programa honen helburu orokorra: Ikasgelako materialak, ikasleentzako eskuliburuak, argitalpen akademikoak, OCW ikastaroak, bideo didaktikoak edota ikerketa-lanak euskaraz garatu nahi dituzten irakasle, irakasle-talde zein ikertzaileei, hizkuntza-prestakuntza eta -aholkularitza ematea, kalitatezko materialak ekoizteko irizpide eta baliabide eraginkorrak eskura ditzaten.

AITZINATU programako parte-hartzaileek proiektu bat hartu beharko dute jomugan: adibidez, laborategiko praktiken gidoiak euskaraz egitea, irakasgai bateko diapositibak eguneratzea, metodologia berriak aplikatzeko materialak sortzea, irakasgairako bideo-tutorialak sortzea, OCW ikastaro baterako materialak berrikustea, doktoretza-tesiaren laburpena euskaraz idaztea, euskarazko hitzaldiak egitea... AITZINATU programan zehar, material horiek izango dira hizkuntza-premiak identifikatu, eta hizkuntza-gaiak lantzeko abiapuntua.

Ikastaro hau bereziki gomendagarria da modu kolaboratiboan proiektu bat (berrikuntza-proiektu bat, adibidez) garatzen ari diren irakasle edo ikertzaile-taldeentzat. Era horretara, hizkuntzaren lanketa modu sozial eta kooperatiboan egitea bermatzen baita, eta horren bidez, terminologia eta diskurtso akademikoaren ezaugarriak partekatzea errazten da.



2. AITZINATU PROGRAMAREN EZAUGARRIAK eta BALDINTZAK:

Jarraian zehazten dira prestakuntza-programaren xehetasunak (dedikazioa, egutegia, plangintza...). Era berean, ereduako egutegia ere zehazten da. Egutegia (eta erritmoa) egokitzeko aukera ere egon daiteke, taldearen arabera, beti ere, guzien adostasunez.

2.1. Programazioaren dedikazioa eta egutegi-eredua

2.1.1. Datu orokorrak

Aukerak:

AITZINATU-1: Ikasleentzako ikasgelako materialak prestatzera zuzendutako programa
AITZINATU-2: Ikasmaterialak eta argitalpenak prestatzera zuzendutako programa
AITZINATU-3: Ikus-entzunezko edukiak lantzera zuzendutako programa

Iraupena: 6 ECTS

Modalitatea: telematikoa (edota presentziala, taldearen arabera)

- 5 mintegi taldean (online): 10 ordu
- 5 tutoretza indibidual (online): 5 ordu
- Proiektu gidatua: 45 ordu

Aurrez aurreko mintegien ordutegia: Taldekideen artean adostekoa

Egutegia (erreferentziakoa):

Hasiera: 2024ko urriaren 21eko astean

Amaiera: 2025eko ekainaren 25eko astean

Taldeko online mintegiak:

Azaroan- 2 orduko mintegia

Abenduan- 2 orduko mintegia

Urtarrilean- 2 orduko mintegia

Martxoan- 2 orduko mintegia

Maiatzean- 2 orduko mintegia

- Mintegietako saioak bideo-plataforma bidez egingo dira.
- Egun eta ordu zehatza taldekideekin adostuko da.
- Saioak grabatu egingo dira, inork zuzenean parte hartzerik ez badu, mintegian landutakoa beste une batean kontsultatu ahal izan dezan.

Banako online tutoretzak (banakoak):

Abenduan- 1 orduko banako tutoretza

Urtarrilean- 1 orduko banako tutoretza

Otsailean- 1 orduko banako tutoretza

Apirilean- 1 orduko banako tutoretza

Ekainean- 1 orduko banako tutoretza

- Saioak bideo-plataforma bidez egingo dira.
- Egun eta ordu zehatza norbanakoarekin adostuko da.

Plaza-kopurua: 25-30 plaza (taldekatzearen arabera)

Hementxe dago eskuragarri AITZINATU programari buruzko informazio zehaztua:
https://www.ehu.eus/documents/2660428/50390065/AITZINATU-programa_Irakaskuntza-gida.pdf/c0c5d9a3-d6a8-d50c-5739-a71526810199?t=1704218174094



2.1.2. AITZINATU programa antzeko proiektuak aurrera eramán nahi dituzten irakasle eta ikertzaileen taldeetan bideratzen da (6-12 lagun). Taldea lan-ekipo bakarrak osatzen duenean (adibidez, liburu-bilduma bat prestatzen ari den 10 irakasleko talde bat), egutegia eta mintegien ordutegiak zein modalitatea (online edo aurrez aurre) taldeko kideek zehaztuko dituzte, euren proiektuaren berezitasunen arabera.

2.1.3. AITZINATU talde irekien kasuan, berriz, jarraian zehaztutako egutegia eta erritmoa aplikatuko da, non eta kide guztien adostasunarekin bestelako proposamenik ez bada aurkezten. Proposamena Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzaren arloko arduradunari helarazi beharko litzaioke, trebatzaileekin kontrastea egin ondoren, moldaketa egingarriak direla egiazta dezán.

2.2. Taldeak osatzeko eta plazak esleitzeko baldintzak

2.2.1. Taldeak osatzeko parte-hartzaileen gutxieneko kopurua bermatu behar da: 8 lagun taldeko (ratioa, edonola ere, 9koa izan beharko du orotara).

2.2.2. Izen-ematea banaka zein talde-moduan egin ahal izango da. Edonola ere, ikastegiko euskara-arduradunaren onspena beharko du.

2.2.3. Doktorego Eskolako kideentzat 5 plaza gordeko dira. Lehentasuna izango dute tesia euskaraz egiten ari diren doktoregaiek edota argitalpen bat euskaraz prestatzen ari direnek.

2.2.4. Doktorego Eskolako plazak betetzeko eskari nahikori ez balego, edota eskatzaileek ez badute programarekin bateragarria den profilik edo proiekturik, plaza horiek irakasle-ikertzaileei esleitzeko zaizkie. Era berean, irakasle-ikertzaileen plazak betetzeko eskari nahikorik ez balego, edota eskatzaileek ez badute programarekin bateragarria den profilik edo proiekturik, plaza horiek Doktorego Eskolako kideei esleitu ahal izango zaizkie.

2.2.5. Plaza-kopurua baino eskari gehiago jasotzen badira, irizpide hauek aplikatuko dira onarpen-prozesuan:

- Lehentasuna izango dute talde gisa izena ematen dutenek, beti ere, ikastegi, titulazio, sail edo ikerketa zein doktorego-programa bereko kideak baldin badira.
- Taldeko izen-emateen artean, bestalde, lehentasuna izango dute talde autonomia osatzeko baldintzak betetzen dituztenak (8 lagun edo gehiago, proiektu erkide batean inplikaturak)
- Proiektuen izaerari dagokionez, lehentasuna izango dute argitalpen akademikoak egitera bideratutako proiektuek (ikasmaterialak, eskuliburuak, artikulak...)
- Helburua ikasgelako materialak prestatzea helburu duten proiektuen kasuan, lehentasuna izango dute Euskararen Plan Gidarian estrategikotzat jotzen diren titulazioetako irakasgaiek.
- Era berean, lehentasuna izango dute izaera multimedia eta digitala duten ikasleentzako materialek (irudiak, bideoak, eskemak, osagai interaktiboak barne hartzen dituztenak...) euskarri idatzi tradizioaletan bakarrik garatzekoak direnen aurrean ("apunteak", "diapositibak"...)



3. ESKATZAILEAK: parte hartzeko baldintzak eta orientabideak

3.1. Deialdia argitaratzen denean lanean diharduten UPV/EHUko Irakasleek eta ikertzaileek izango dute programa honetan parte hartzeko aukera, prestatze bidean dauden doktoregaiek barne.

3.2. Izena eman ahal izateko, nahitaezkoa da 2024ko irailaren 27an kontratu bat izatea indarrean UPV/EHUUn. Doktoregaien kasuan, ezinbesteko izango da data horretan Doktorego Eskolan onartuak egotea.

3.3. Behin onartutakoen zerrenda argitaratutakoan parte-hartzaileek UPV/EHUrekin duten harremana etengo balitz ere, parte-hartzaileak aukera izango dute ikastaroa amaierara arte egiteko, eta, baldintzak betez gero, dagokien akreditazioa ere eskuratzeko.

3.4. Hizkuntza-mailari dagokionez, AITZINATU programa Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C2 mailan kokatzen da. Beraz, ez da euskara bizkortzeko edo eguneratzeko beharra duten pertsonen zuzendua, baizik eta material akademikoak garatzeko edo hobetzeko proiektuetan inplikaturakoei zuzendua.

3.5. Ildo horretatik, parte hartu ahal izateko ezinbesteko da AITZINATU programaren helburu eta izaerarekin bateragarria den proiektu bat eskuen artean izatea, eta programak eskatzen dituen konpromisoei aurre egiteko dedikazioa bermatuko duen egoera pertsonala aurreikusteak.

4. PARTE-HARTZEA, ALTAK, BAJAK eta AKREDITAZIOA

4.1. Programari dagokion akreditazioa lortzeko, bi baldintza daude: asistentzia eta aprobetxamendua. Programa guztietan gutxieneko parte-hartzea eskatzen da eta aprobetxamendua egiaztatzeko zenbait ebidentzia aurkeztu beharko dira. Horiek guztiak zehaztuta daude programa bakoitzari dagokion informazio-gidan.

4.2. Asistentziaren datua kalkulatzeko orduan, kontuan hartuko dira bidezko lizentziak, bajak, atzerriko egonaldiak... Egoera horietan dauden parte-hartzaileek ez dute penalizaziorik izango asistentziaren datuan. Alabaina, egoera horiek aintzat har daitezten, horren berri adierazi beharko zaio idatziz Euskara Zerbitzuko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzaren arloko arduradunari, eta, hala eskatuz gero, dokumentu justifikagarriak aurkeztu beharko dira. Alabaina, akreditazioa lortzeko, ezinbesteko izango da programa bakoitzean aurreikusitako gutxieneko ebidentziak eskaintzea.

4.3. Inork ikasturtean zehar baja eman behar badu, jakinarazpen idatzia helarazi beharko dio Euskara Zerbitzuko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzaren arloko arduradunari, bajari dagozkion izapide administratiboak garaiz eta modu egokian egin ahal izan daitezten.

5. IZEN-EMATEA

5.1. Eskariak. Eskariak ikastegiko Euskara Arduradunari helaraziko zaizkio, 2024ko irailaren 25 baino lehen, posta elektronikoaren bidez. Euskara Arduradunek, berriz, eskariak onetsi eta Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzaren arloko arduradunari helaraziko dizkiote 2024ko urriaren 4a baino lehen (joseba.ezeiza@ehu.eus). Eskarretan datu hauek zehaztuko dira:



5.1.1. Eskatzailearen edo eskatzaileen taldeko kideen oinarrizko datuak: izen-abizenak, saila/doktorego-programa eta kategoria profesionala.

5.1.2. Irakasle-ikertzaileak/ek aurrera eramango duten proiektuaren xehetasunak:

a) **Irakasgaiako materialen sorkuntza edo eguneratzea.** Kasu honetan, irakasgaiaren izena eta atxikita dagoen titulazioa zehaztuko dira. Era berean, zehaztuko da materialak euskarri tradizionaletan ez ezik, multimedia ere baliatzea aurreikusten den edo material digitalak ere barne hartuko diren.

b) **Argitalpen akademiko bat egitea (ikasmaterialak, eskuliburuak, artikulua..).** Kasu honetan, zehaztuko da zer argitalpen-mota egin nahi den, non argitaratzea aurreikusten den eta zer ekarpen egin nahi den argitalpen horren bidez.

c) **Ingurune digitaletarako baliabideak edo aurretik eginak dauden materialak ingurune digitalerako egokitzea.** Material motak zehaztuko dira, eta zer berrikuntza edo ekarpen egitea aurreikusten den zehaztuko da.

d) **Doktorego-tesia osorik edo parte batean euskaraz egitea.** Tesiaren datu orokorrak emango dira (doktorego-programa, gaia, zuzendaria..).

e) **Doktorego-tesian edo ikerketa-lan batean oinarritutako artikulua idaztea.** Artikuluaren gaia eta aldizkariaren erreferentzia emango dira.

5.1.3. Egutegi-proposamena (8 lagunetik gorako taldeen kasuan). Proiektu bat aurrera eramateko osatzen diren lan-talde handiek, aukera izango dute egutegi-proposamen egokitua aurkezteko, beti ere, 2.2.1. atalean dagoen eredutik abiatuta. Egutegian hauek zehaztuko ahal izango dituzte: a) hasiera-data (2024ko urritik aurrera, beti ere); b) amaiera-data (2025eko irailaren 30a baino lehen, beti ere); c) mintegietarako data eta ordutegi zehaztuak; d) mintegiak aurrez aurre egin nahi izanez gero, mintegia egiteko lekua; eta e) euren proiektua modu egokian aurrera eramateko lagungarri izan daitezkeen bestelakoak.

5.2. Onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenden argitaratzea. Onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendak 2024ko urriaren 8an argitaratuko dira Euskararen, Kulturaren eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren webgunean. interesdunei helarazi ahal izan diezazkieten Interesdunek 5 eguneko epea izango dute alegazioak egiteko edo euren eskaria bertan behera uzteko.

5.3. Onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenden argitaratzea. Onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak 2024ko urriaren 16an argitaratuko dira Euskararen, Kulturaren eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren webgunean. Ikastegietako euskara-arduradunei ere helaraziko zaizkie posta bidez, interesdunei helarazi ahal izan diezazkieten.

Leioan, 2024ko irailaren 12an

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea